



## 60 urteko kartzela zigor eskaera 25 inputatuei

**TOLOSALDEA** ▶ Gazteluko Kultur Etxeko kaleratzeen auzian behinbetiko zigor eskaera egin dute

**ESKAERA** ▶ Zigor ezberdinak eskatu ditu akusazio partikularrak, fiskalak eta Abokatuen Elkargoak ▶ 4



## Ramadanaren inguruan eskualdeko musulmanekin

**TOLOSALDEA** ▶ Hilabete eta gero, bihar amaituko da ramadana. Eguzkia ateratzen den unetik hasi eta ezkututzen den arte, ezin dute ez jan, ez erre ez eta edan ere. Ramadana egiten dutenen arabera, «urteko gehiegikerietatik gorputzari deskantsua emateko bide bat izaten da; horretaz gain, lagunartean elkartze-

ko, hitz egiteko, behartsuengan pentsatzeko... ere baliatzen da; hamar-hamabi ordu lan egiten ditugu tartean edan eta jan gabe, baina ez gara nekaturik sentitzen». 85 musulman inguru bizi dira Tolosan, eta horietako batzuekin izan gara hilabete honen inguruko xehetasunak jakin ASMOZ. IÑIGO TERRADILLOS ▶ 6-7

### ANOETA ▶

## Gazte Asanbladak bi futbol talde

3B taldeak bihar hasiko du denboraldia ▶ 4

### ALEGIA ▶



HITZA

## Txintxarri abesbatza, Guridiren omenezkoan

Azpeitian eskainiko du kontzertua, gaur, 19:30ean ▶ 5

**jantzi**  
**hitza** ren  
**jertseak**

HITZAren egoitzetan salgai

abenduaren 31 rarte ezkontza erreportaien kontratazioan eskeintza berezia

**NESTOR ARDANAZ ESTUDIO**

gudari kalea 10  
tel.: 943652228  
**626782100**  
tolosa

KIROLAK ▶

# Jarduera fisikoa nola aholkatu irakatsi dute adituek

## Hiru egunen ondoren, gaur amaituko da Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunaren Nazioarteko Kongresua

ESTI EZEIZA

Gaur, eguerdian amaituko da Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunaren Nazioarteko Kongresua. Atzokoan, lau hitzaldi izan ziren entzungai Leidorren. Horrez gain, beste horrenbeste tailer izan ziren Usabal Kiroldegian.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA, Iñaki Iturrioz, Irungo Udalaren Kirol Patronatuko Ki-



Tailerraren azken zatian, ariketa praktikoak egin zituzten. E. EZEIZA

IÑAKI ITURRIOZ ▶ IRUNGO UDALAREN KIROL PATRONATUKO KIROL TEKNIKARIA

## «Hasteko, onena, ohiko aktibitateetan ariketa fisikoa tartekatzea da»

Iñaki Iturriozek, beste hiru profesionalekin batera zuzendu zuen atzo, *Jarduera fisikoa nola aholkatu* izeneko saioa.

**Tailerrean, arlo ezberdinetako profesioanalak zeuden.**

Bai, jendeak badaki, aholkuak emateko garaian ez dagoela protokolorik. Ez dago horrelako arau zehatzik edo zientifikorik eraginkorra izateko. Batez ere, medikuntza eta hezkuntza fisiko arlotik etorri da jendea. **Zein ezaugarri hartu behar dira kontuan, aholkuak emateko garaian?**

Oso garrantzitsua da pertsonarengana heltzea eta laguntzea. Normalean, jendeak badaki zein eragin duen ariketa

fisikoa ez egiteak. Horregatik, kontua da, laguntzea eta irtenbide honena aurkitzea, bide egoki horretara zuzentzeko.

**Askotan aipatu duzue, aholkuak pertsonalizatua izan behar duela, baina askotan ez da horrela izaten.**

Nik uste, oraindik profesioalak eta ariketa fisikoa lantzen dugunak ez gabela kirola egitearen beharraz ohartu.

**Kongresuan gehien jorratzen ari den gaia sedentariomarena da. Noiz esan daiteke pertsona bat sedentarioa dela?**

Nazioartean gutxiengo bat onartua dago, eta hori neuritzeko baliabide ezberdinak



E. EZEIZA

daude. Hala, modu simple bat da, kontuan hartzea, ea pertsona batek, astean lau egunetan, 30 minutuz intentsitate ertaineko aktibitate fisikoa egiten duen edo ez. Honaino ez bada iristen, sedentarioa da.

**Zein aholku emango zenieke pertsona sedentario bati, kirola egiten hasteko?**

Oso garrantzitsua da, hasiera batean pentsatzea, zertarako den gai. Eta pixkanaka hasiera bakoitzari egokitutako maila batean. Esaten dute ere, errazagoa dela hasia, eguneroko,

rol Teknikariak eskaintako tailerrean izan zen atzo arratsaldean. Honek, *Jarduera fisikoa nola aholkatu* izeneko saioa zuzendu zuen. Bertan, medikuntza eta kirol arloko profesionali, beraien pazienteei nola aholkatu azaldu zuten. Modu praktikoan, pertsona baten kasua aztertu zuten. Hala, honen aurrekariak, egoera, arrazoiak eta abar kontuan hartuz, aholku ezberdinak osatu zituztelarik. Behin eta berriz aipatu zuten saioan, norberaren araberakoa izan behar duela aholkuak, eta luzera bete ahal izango dena.

Kongresuarekin amaitzeko, gaur, 09:30ean tailer teoriakoen ondorioen aurkezpena egingo da. Jarraian, hiru hitzaldi izango dira. Eta 13:15atik aurrera amaierako ekitaldia izango da. *Ariketa fisikoa egitea osasungarria al da?* saioarekin amaituko du Jose Maria Odriozola, Espainiako Atletismo Federazioko Lehendakariak.

ohiko aktibitateetan, ariketa fisikoa tartekatuz. Adibidez, eskailerrak igotzea, lanera oinez joatea...

**Instituzioen aldetik behar bezain beste lan egiten al duzue?**

Erakundeetan eta kezka hor dago, bai sedentariomaren gaitzen... Baina oraindik ez dago erantzun integral bat, eta faktore guztiak kontuan hartzen dituen. Hala ere nik beharrezkotzat jotzen dut hori egitea. Aktibitate kulturalak eta badaude, baina koordinatu gabe, eta nik uste, horretan lan handia egin beharra daukagula.

**Gurasoei eta, zer aholkatuko zenieke haurrek ohitura onak har ditzaten?**

Aholku nagusia da, beraien hasteko ariketa fisikoa egiten. Zeren eta, haiek ez badute egiten, eta haurrak hori ikusi, beraien ere ohitura bera hartuko dute, eta esandakoari ez diote jaramonik egingo.

GIZARTEA ▶

## Merkatariek inauguratuko dute gaur Zerkausia

E. EZEIZA

Zerkausiko berritze lanengatik zortzi hilabetetan Triangulo plazan egon ondoren, baserritarrak berrito ere betiko gunean dira dagoeneko, hau da, Zerkausian.

Joan den larunbatean Zerkausian izan bazen ere betiko azoka, gaur egingo dute inaugurazio ofiziala merkatariek. Hau horrela, goizeko hamarrak inguruan, Roberto Ruiz, eta Felix Belaunzarán, Tolosako Fronton eta Berrobiko Iriarte Jatetxeetako sukaldariek gosari txiki bat banatuko die baserritarrei eta bertara inguratutako.

11:00etan berriz, Martin Berasategi eta Tolosako Jate-txe ezberdinetako sukaldariek ibiliko dira Zerkausian, beraien menuak prestatzeko kalitatezko jakiak erosten.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarralde. Osasun etxea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Orea. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorio, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Erztaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

**ARAMBURU**  
Salgai (Irura), Pisu.  
Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko, 17. 140 m2. Bistekin.  
Salgai (Tolosa), Pisu Laramendi kalean.  
Salgai (Tolosa),  
Ileapaindegia lurre auzoan.  
Salgai (Tolosa),  
Belardenda, kale Nagusian.  
Salgai (Tolosako lurten), Ofizinalokala.  
Salgai Garajeak, Ibarren eta Tolosan.  
Alokatzeko, Pisu. Estrenatzeko estazioaren ondoan, garajearekin.  
Alokatzeko, Garajeak, Araba etorbidean, San Frantzisko eta lurre auzoan.  
Alokatzeko (Tolosa),  
Lokala, Herrementari kalean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**HOL - ATZ**  
info@hol-atz.com • www.hol-atz.com  
Tel.: 943 69 30 63 - Faxa: 943 69 40 59  
Urtaki ind., 30 - 20150 ADUNA

**PIPIEN AURKAKO EGUR ETA ALTZARI TRATAMENDUA**

**Beti Alai**  
jatekoa  
Garaian garaiok janariak Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementari kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Gaztebteen egoera ez da ona. Azkenekoa, Villabonakoa izan da: gaztebetea utzi beharko dute egun hauetako batean. Zer deritzozue? Zergatik itzi nahi dituzte? Irtenbiderik ba al du? Erman zure iritzia TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Villabonako  
Gaztetxea  
ez da hilko

Gazteriaren eta gazteteen aurkako errepresioak ez du etenik: Burlatako gaztetxea izan zen duela gutxi eta orain, berriz, Villabonakoa. Gazteteak, sortu zirenetik, ikaragarriko errepresioa jasan dute eta azkenaldian hau areagotzea ez da kasualitate bat, izan ere, arriskutsuak dira egungo bostere nagusi burges kapitalistarentzat, funtzionamendu asanbleista izateaz gain heuren kontrolpean ez dauden eremuak baitira.

Gazteteak, gazteen indarrak eta antolakuntzak eraikitako eremu libreak, kreatiboak, autogestionatuak eta alternati-

boak dira, klase dominatzailearen kaltetan.

Aurreko urtean, Villabonako Udaletxeak kale gorrian utzi zituen Onddo gazte asanbladakoak. Aitzakia, eraikin berriak egitea izan zen. Udaletxeak beharrezkotzat eta garrantzizkotzat ikusten zuen etxeak egitea, baina gazteen beharrak aseko zituen gaztete bat eskeintzea ez zegoen nonbait bere agendan. Gazteei lokal bat eskaintzea mugatu zen, gazteen bete-beharrak asetzen ez zituena. Onddo gazte asanbladak, hori ikusita, urte askotan hutsik zegoen Urdanpilleta etxea okupatzea erabaki zuen.

Sistema kapitalistak beti leporatu nahi izan die gazteei alperak, mozkorrak, arriskutsuak... direla, batez ere bere kontrolpean ez dituzten gazteei. Villabonako gazteek eraku-

tsi dute beste behin zertarako diren gai, hainbat gauza antolatuz eta gazteteari eta herriari bizia emanez: kontzertuak, jaiak, antzerkiak, bertsolariak, olinpiadak, haur jolasak...

Orain, haurtzaindegi berria egiteko bota nahi dute gaztetea, garrantzitsua delarik aipatzea Onddo gazte asanblada ez dagoela haurtzaindegi berriaren proiektuaren kontra. Baina udaletxeak ez die gaztete duin bat eskeintzen eta beraz, borrokatzeko prest agertu dira. Irtenarazteko epeari muzin eginez, Urdanpilleta etxean jarraituko dutela esan dute.

Honekin ikusten da gaztete baten esangura politikoa eta potentzial iraultzailea jendeak, gehien bat gazteek, euren denbora librea igarotzeko erabiltzen duten aisi gune bat izateko haratago doala. Gazteteen

potentziala hain urrun joatearen arrazoia gune hauetan lan politikoa eta salaketa soziala eguneko ordenean egotearena da, borroka antisistemako zinezko lekuak baitira. Lan guzti honek gazte hauen antolamendu gaitasun handia erakusten digu, gai baitira beraiena den gune baten kudeaketa aurrera eramateko, ekintza ugari antolatze eta gainera denbora eskeintzen diote inguratzen dituzten gizarte errealitatearen hainbat salaketari.

Hilzorian aurkitzen den kapitalismoaren beste ondorio bat gehiago da bertako gazteen egoera. Gizarte kapitalistan baliabideak ez dira gazteen onurarako erabiltzen, gutxi batzuen poltsikoak betetzeko bai. Kapitalismoa ez da gai herriarren beharrak asetzeko, eta burgesiarentatik izango

balitz, Villabonako gazteek gaztete gabe geratuko lirakete. Hauen borrokarekin soilik lortuko da Villabonako gaztete duin bat, eta hori egiteko prest daude: beren jarrera iraultzailea erakutsiz ez dute edozein lokal onartuko.

Horregatik da beharrezkoa belaunaldi berriei etorkizun duin bat eskeintzeko gai ez den sistema ustel honekin amaitzea, ekointzeko indarrak, horrelako guneak... langile eta gazte hauen kontrolpean jartzea. Berandu baino lehen kapitalismoa eroriko da eta prozesu horretako borrokan zeresan handia izango dute Euskal Herriko gazteteek. Onddo gazte asanbladak aldarrikatzen duen moduan: Herri bat Gaztete bat.

GARIKOITZ ITURBE ETA IBON ARTOLA  
EUSKAL HERRIA SOZIALISTA  
ALDIZKARIKO KIDEAK ▶ VILLABONA

TOLOSA ▶ KIROLA

Bihar iritsiko da Peña  
Miramarrera Chiquita  
zeharkatu ondoren

Ostegunean abiatu zen tolosarra eta Argentinako laku handiena 4 egunetan igeriz zeharkatzea da bere helburua



Carlos Peña eta Jesus Ramirez Lodosan entrenamendu batean. HITZA

NAIARA GARZIA

Herenegun ekin zion Carlos Peña igerilariak bere abenturako lehenengo txanpari. Ostegunean hasi eta igandean Miramar hirira iritsi eta amaitzeko asmoa du. Beraz, 4 bat egunetan zeharkatuko du Argentinako lakurik handienak, Chiquitak, dituen 100 kilometroak. Horretarako egunean 8 ordu inguru igeritea da bere asmoa.

Haizearen norabidearen arabera frogatuko da batetik edo

bestetik egiteko asmoa zuen, eta azkenean ezkerretatik abiatu da. Desafio honek Argentinan izan du oihartzunik: Hurrengo asteburuan bertako Euskal Etxeen Astea egingo dutenez Cordoban, erronka hau beraien egitarauan sartu dute eta hainbat komunikabide egongo dira tolosararen abentura jarraitzen.

100 kilometro hauek bizkarrez egiten ari da Carlos eta horregatik Jesus Ramirez piraguita du laguntzaile. Honetaz gain, Carlosek hainbat zailtasunekin egin du topo. Alde batetik, Chiquita lakuko ura oso gatzatua da, eta abiatu baino lehen argi utzi zuen bere begietan eta digestio-aparatuan eragina izan den duela. Bestalde ezaugarri klimatikoak ere gogorak dira bertan, eta honek ez dizkio gauzak erreztuko.

Carlos Peñak antzeko abentura asko egin ditu: Mexikon Chapala lakua zeharkatu zuen, Hungriar Balaton izenekoa, eta Tolosako Usabal kiroldegiko 25 metroko igerilekuan 24 ordu eman zituen igeriten.

LEITZA ▶ ZINEMA

Argentinako  
filme batekin  
hasi da zinema  
denboraldia

Daniel Szifronen  
*Tiempo de valientes*  
filma bihar iluntzean  
botako dute berriro

N. GARZIA

Bart hasitako filme denboraldirako 4 lurralde ezberdinetako filmak aukeratu dituzte: Argentina, Espainia, Frantzia eta Kanada. Orduetegi bera mantenduko dute denboraldian zehar: ostiralero gauko 21:30ean izango da lehenengo emanaldia, eta igandean, arratsaldeko 19:30ean, bigarrena. Datorren asteburuetan ikusi ahalko diren beste filmak hauek dira: *Azul oscuro casi negro*, *Hacia el sur* eta *CRAZY*.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**urteurrenak ▶**

I. Urteurrena

**Teresita Lasa Galparsoro**

2005eko urriaren 26an hil zen, 70 urte zituela, Elizakoa eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Golan bego-

Senarra: Juan Begiristain; seme-alabak: Simone eta Rikardo Aranburu, Karnele eta Juan Antonio Armendariz, Iosune eta Emiliano Lopez Atxurra; bilobak: Joanne, Iker eta Natale.

BIHAR, IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN, Ordiziako Andre Maria Zeruratuen parroki elizan izango den mezara gonbidatzen zaituztete.

helbidea ▶ Idoliaga enparantza 2, 2.B

**ORDIZIA, 2006ko urriaren 21a**

## IBARRA ▶

**Josetxo Jauregi  
omenaldia gaur  
19:00etan**

Josetxo Jauregi erail zutenetik 25 urte pasa dira. Hori dela eta, gaur arratsaldeko zazpiretan omenaldia egingo diete Ibarako hilerrian. Omenaldi- ekitaldiarekin barnean, txalpartariak, dantzariak, bertsolariak eta omenaldi-ekitaldia izango dira. Gogoratu, 1981ean erail zutela Josetxo jauregi, eta beraz 25. urtemuga betetzen duela aurten.

## IBARRA ▶

**Gaur hasiko du  
ikasturte berria  
Txiribituk**

Gaur ekingo dio Ibarako Txiribitu aisialdi taldeak ikasturte berriari. Arratsaldeko lauretan elkartuko dira gaztetxoak parrokiako lokalera eta begiraleek antolatutako ongi etorri ekitaldiaz gozatzeko aukera izango dute. Hasteko, merienda egingo dute eta gero haur-jolasak. Honetaz gain, urtea nola joango den edota zein ekintza egingo diren azalduko diete.



## ZIZURKIL ▶

**Trafiko aldaketak  
izango dira bihar  
herriko kaleetan**

Zizurkilgo IX. Azoka Berezia dela eta bihar trafiko aldaketak izango dira herrian. Zuzurkilgo baserriko Zizurkilgora doan errepidea honako hauek soilik erabili ahal izango dute: artisauek, janari postuetakoek, bertsolariak, antolakuntzakoek eta azoka inguruko bizilagunek. Azokara joateko ibilgailuek, Olentzo pareko bidegurutetik egin beharko dute.

## POLITIKA ▶

# Orotara ia 60 urteko kartzela zigorra eskatu du Fiskaltzak eskualdeko 25 inputatuentzat

1999 eta 2000 urteen artean Gazteluko Kultur Etxea itxi ondorengo protesten inguruko auziko inputatuei behin-betiko zigor eskaera egin zieten atzo

## ERREDAKZIOA

1999 eta 2000 artean Gazteluko Kultur Etxea itxi ondorengo protesten inguruko gertaerengatik inputaturiko eskualdeko 25 lagun behin-betiko zigor eskaera egin zieten atzo. Gipuzkoako Auzitegian buruturiko epaiketan, justiziari traba egitea eta mehatxu nahiz behartze delituak izan ziren inputatuei leporaturikoak.

Fiskalari dagokionez, lehendik zuten akusazioa mantendu eta orotara ia 60 urteko kartzela zigorra eskatu zuen 25 inputatuentzako justiziari traba egitea leporatuta, hau da, abokatu bati presioa egitea prozesu batean parte hartzen ari denean duen irizpidea aldarazteko. Zigorri dagokionez, ordea,

akusazio pertsonalizatua egin zuten fiskalak. Hala, kaleratuak izan ziren bost langile eta beste bi inputatuentzako 3 urteko kartzela zigorra eta inabilitazioa eskatu zituen, baita 7.200 eurotako isuna eskatu ere hoguei hilabetetan, hamabi euro hileko. Gainontzeko 18 inputatuentzako, berriz, 2 urteko kartzela zigorra eta bozkatzeko eskubidearen ukapena eskatu zituen.

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak, Fiskaltzaren akusazio bera eginez —justiziari traba egitea— urtebeteko kartzela zigorra eta 6 hilabeteko multa eskatu zituen 23 inputatuentzako. 2 inputaturi, ordea, kendu egin zien akusazioa.

Azkenik, Pilar Zubiarrainen akusazio partikularri dago-

kionez, aldaketak izan ziren akusazioan. Honek, mehatxu eta behartze delituak leporatuta, bi urteko kartzela zigorra eskatu zuen 22 epaituentzat, baita 60.000 eurotako isuna ere Pilar Zubiarraini eginiko «kalte psikologikoengatik».

Inputatuen defentsan lanean aritu diren bost abokatuek, «erabateko absoluzioa» eskatu dute epaituentzat, «parte hartzeak argi ez daudela» eta «ez mehatxurik ez eta presiorik egin ez zutela» argudiatuz.

Bestalde, gertaera horiek «protesten barruan kokatu» behar direla eta «udaletxearengandako protestak bi arrazoiengatik» egin zirela, azaldu zuten, «kaleraturiko langileei elkartasuna adierazteko eta herriari Kultur Etxea ixtea se-

kulako kaltea» izan zela, hain zuzen ere.

Protestei dagokionez, «guztiz ohikoak» direla eta «horrelako gertaeretako protestak adierazpen askatasunaren barnean sartzen den kritika» direla argudiatu zuten. Azkenik, «egindako kexuak eduki penalik» ez dutela eta beraz «delitu ez direla» argudiatu zuten defentsa lanetan arituriko abokatuek.

Esan bezala, atzo amaitu zen inputatuen behin-betiko delitu eskaera. Orain, ordea, sententziaren zain egon besterik ez dago. Behin sententzia aterata jakingo da zein izango den inputatuek bete beharko duten zigorra. Oraingoan, ordea, ez dago sententzia noiz aterako denaren datu zehatzik.

## ANOETA ▶

## Gazte Asanbladak badu 2. futbol taldea

Gazte Asanbladaren 3B taldeak bihar hasiko du denboraldi berria Zarautzen

## ERREDAKZIOA

Anoetako Gazte Asanblak berri onez dator, izan ere, badu zer ospatua. Batetik, areto futboleko talde berria sortu delako. Bestetik, berriz, lehendik zuten 3B mailako taldeak denboraldiari ekingo diolako biharkoan.

Esan bezala, areto futbol talde berri bat sortu du Anoetako Gazte Asanbladak honako jokalariei hauekin: Asier Sorron, Urtsi Urkola, Endika Esnaola, Aritz Peñagarikano, Aratz Luisa, Yerai Iglesias, Asier Gutierrez, Xabi Urretabizkaia eta Ibai Amondarain. Joxe Martin Anton eta Jarbi Ayerbe, berriz, delegatu lanetan arituko direnak dira.

Iaz sortu zen lehenengo aldia, Anoetako Gazte Asanbladako lehen areto futbol taldea eta 3. mailatik 3B mailara igotzea lortu zuten gainera.

3B mailako taldeak dagoeneko bi partiduko jokatu ditu eta biak irabazi ditu gainera. Jubenilak, aldiz, aste honetan hasiko dute denboraldi berria. Ligako lehen partida bihar izango delarik Zarautzen eguerdiko hamabietan.

Anoetako Gazte Asanbladak herritarrenganako deia egiten du taldea animatzera joan daitezuen. Partidua ikustera joan nahi denak, agertu dadila bihar 12:00etan plazara.

Jose Luis Belloso

**UJLO**

proiektuak  
obra zuzendaritza eta altzarigintza

arquitectura-de-interior

Erremontari, 5 behea / 20400 Tolosa-Gipuzkoa / Tel.: 943 67 52 48 / Faxa: 943 67 34 58 / joseluisbelloso@telefonos.com

BIHAR Zinema Etxean 2

mantangori

8 DVD esuharraz

berria

+ 4,50 €

ALBERTO FUJEDA, 100 PUNKATZAZ berria

ALEGIA ▶ MUSIKA

# Txintxarri, Guridi gogoratuz

Azpeitian egingo dute kontzertua, musikariaren jaioteguna gogoratuz

NEREA URBIZU

Aste honetan Lukas Guridiren jaiotzaren 100. urteurrena ospatzen dute Azpeitian, eta horretarako Alegiako Txintxarri Abesbatzak bere omenezko kontzertua eskainiko du gaur Azpeitian, 19:30ean. Kontzertuan Lukas Guridiren hainbat moldaketa entzun ahal izango dira: denak Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean. 13 kanta eder eskainiko dituzte arratsaldean zehar, Azpeitiako Berran aretoan.

Alegiako Txintxarri abesbatzak Azpeitian egingo duen saioa ez da harrizkoa, Guridik Alegiako abesbatzarekin izan zuen harremana kontuan hartuz gero. Izan ere, Guridi azpeitiarra duela ia 70 urte ailegatu zen Alegiara, Gerra Zibila hasi zenean ihes egin behar izan zuenean, hain zuzen. Apaiza eta musikari izanik, orduko Txintxarri Abesbatzarekin lanean hasi zen, haren ardurapean gizonez osatutako abesba-

EGITARAUA ▶

- Kantatuko nizuke.** Meystre Willesegge-rena.
- Agurra.** J.L. Ansorenaren moldaketarekin.
- An Irish Blessing.** Moldaketa J.R. Moore-rena da.
- Nere herriko.** Menito Lertxundiren kanta ezaguna.  
▶ Bakarlaria Xefe Balerdi eta pianoan Mariaje Rekondo.
- Nahi zuya yin.** Pablo Sorozabalena.
- Zer dugun ikusi.** T. Garbizu.
- Lukas Guridiren moldaketa lanak.** *Oil Zein eder, Oi Betlehem, Noiz?, Itxarkundia, Mendekoste Festetan, Maritxu eta Txakolin* obrak.

tza zuzenduz. Bitartean egun ezagunak diren kantauk konposatu edota moldatu egin zituen, Alegian, hain zuzen.

Musika sortzaile dugu beraz Lukas Guridi, lan garrantzitsuak eginez. Ezagunenetako bat *Flos Carmeli* Meza da, or-



Txintxarri abesbatzak urtean zehar hainbatetan kanpora joaten da abestera. Gaur, Azpeitiara doaz. HITZA

ganoa eta hiru ahots behar dituen konposizioa, hain justu. Beste lanak *O sacrum, Tamtum ergo* edota *Oi Betlehem* dira, erlijioarekin lotuta daudenak. Baina kontzertuan entzungai izango diren beste hainbat obra folklorikoak ditu bere lan guztiaren zerrandan ere, hala

nola, *Mendekoste festetan, Mirentxu, Noiz, Itxarkundia, Iru Damatxo, Bonbolotena* edo *Txakolin*.

Hurrengo emanaldiak

Txintxarrik beste emanaldi bat egingo du, azaroaren 19an Ale-

gian, Txintxarri Egunean. Mezan Txintxarri abesbatzan inoiz kantatu izan duten hildakoei eskainiko zaie. Ondoren, kontzertua, baita Txintxarri Txikiak ere. Eguberrietan hainbat ekitaldiren barruan kantatuko dute herritarrentzat, urtero egin ohi duten bezala.

TOLOSA ▶ KULTURA



## Karakus-en 'Topaketa' Leidorren

**N. Urbizu** ▶ Ostegun gauean Leidorren lagun talde ederra bildu zen, Sükrü Karakus turkiarraren koadro erakusketa ikustera. Bertaratu zirenek luncha ere izan zuten. Askok Karakus artistarekin hitz egiteko aukera ere izan zuten, han baitzegoen. *Topaketa* erakusketa 100 margolanez dago osatuta, eta Tolosak eta Turkiak gogora ekarri dizkion kolore eta irudiak ikus daitezke bertan. Azaroaren 12ra arte izango dira jendeak ikus dezan. Fronton jatetxean, aldiz azaroaren 17ra arte. IMANOL GARCIA

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta tetxua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.  
**Autoa.** Renault Clio autoa salgai.

80.000 km ditu. 5.500 eurotan. Interesatuak deitu hurrengo telefono zenbakira: 635 20 52 53.  
**Etxebizitza.** Amezketan eraikuntza berriko etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea bainugela eta trastelekuarekin. Interesgarria.

Deitu 637 80 60 44 telefono zenbakira.

**LANA**

**Zaintzailea.** Gazte brasildarrak adineko jendea zainduko luke «interno» estiluan. 663 70 47 73.

GIZARTEA ▶

# Gorputzari atsedena

Hilabete pasa ondoren, bihar izango dute ramadanaren azken eguna musulmanek; Tolosan bizi diren hainbatekin izan gara horren berri jasotzeko



MBarek, Mohamed, Saad, Hassan, Benazzi eta Rachid, besteak beste, mahaiaren bueltan eserita. IÑIGO TERRADILLOS

MOHAMED HAIMAME ▶ MUSULMANA

## «Korana dena da; zerbait bilatu nahi baduzu, bertan dago»

Mohamed Haimame marokoa-rrak jada hamar urte daramatza Tolosan bizitzen.

### Zein da ramadanaren zentzua edo esanahia?

Urte osoan, gorputza nekatu egiten da eta deskantsua eman behar zaio. Nolabait esateko, bidean egiten den geldialdia litzateke. Barne hausnarketa da eta bide txarretik, esaterako drogetan sartuta daudenean, aukera izaten dute ohitura txarrek alde batera utzi eta bide onetik abiatzeko. Bost zutabe ditugu eta horietako bat da; errezzatu, Mecara joan, pobreei lagundu eta Jainkoan sinistearekin batera, bete beharreko zerbait da.

### Zer sentitzen da?

Baraurik zaudenean, pobre edota jatekorik ez daukatenengan gogoratzen zara. Bes-tetik, alkohola, tabakoa edo

drogak bezalako bizioen kon-trako borroka da.

### Gogorra egingo da, ezta?

Ez, ez, ez, inork ez du sufritzen. Ramadana egiten zaudenean pazientzia, leialtasuna eta irautea da garrantzitsua. Hamar-hamabi ordu lan egiten ditugu tartean jan eta edan gabe, eta ez gara nekaturik sentitzen.

### Otoitzak egiteko nola moldatzen zarete?

Nik ez dut errezzatzen baina jendeak arazoak izan ditu Europan bizi eta lan eginda otoitz egiteko. Lanean zaudela gelditu eta joan egin behar duzu eta inork ez du onartzen ohitura horiengatik lanean horrela ibiltzea. Hala ere, salbuespe-nen bat bada, baina ez da gure kasua. Guk, bost minututan egiten dugu otoitza erabat kontzentratuta.



IÑIGO TERRADILLOS

### Zer nolako otoitzak izaten dira?

Bost alditan banatzen dira eta bakoitza hamar minutukoa izaten da. Egunean zehar banatuta egiten dira: goizean, eguerdian, arratsaldean eta iluntzean. Jainkoarengandik gertu sentitzen zara eta ez daukaten-gandik ere bai.

### Jende askok egiten du Ramadana?

Denetarik dago, baina bai, gehiengoak egiten du. Musulman lurralde guztietatik bakarra da laikoa eta beste guztietan ofiziala da erlijioa. Eta horietatik batzuetan gainera, ez egiteagatik hiru hilabetetako kartzela zigorra ere jaso dezakezu, baina ez da Marokoren kasua.

### Gaizki ikusia dago ez egitea?

Bakea norberarentzat da, eta bakoitzak ikusiko du bere buruarekin zer egiten duen. Norberaren erabakia da, eta ez dago gaizki ikusia.

### Txerriak jatea debekatua du-zue, zer dela eta?

Bere garaian, txerriaren izurrite bat izan zelako da. Baina gutarriko batzuentzat debekatua dagoela esaten du koranak eta beste batzuentzat kontuz ibiltzeko, ez gara ados jartzen horretan.

### Zer da Korana?

Korana dena da, bakarra. Zerbait bilatu nahi baduzu, bertan dago idatzita, istorio asko dau-da. Ona da irakurtzeko; bakea bilatzen duzu bertan. Musulmanontzat eskubide bat da.

ENERITZ MAIZ

Tolosan bizi diren marokoa-rrak batzuekin, taberna batean, arratsaldeko zortzietan genuen egina hitzordua, bihar amaitzen den ramadanaren gainean hitz egiteko. Gure harri-durarako, hauetako bat genuen zain eta gonbita luzatu zigun beste guztiak elkartuta zeuden pixura joateko. Beste aukerarik gabe, autoan sartu eta besteengana abiatu ginen. Bertan zeuden denak, mahaiaren bueltan eserita, kontu-kontari. Guri tartetxo bat egin, eskuzabal, beraien gosaria eskaini eta prest zeuden ramadanari buruzko informazioa eta iritziak emateko.

Berbereak ziren ia guztiak, Marokoren ipar, hego eta erdialdekoak. Hizkuntzari dagokionez, arabieraren dialekto ezberdinak hitz egiten dituzte eta elkarren artean komunikatzeko arabiera ez jasoa erabiltzen dute.

Hilabete irauten duen aldi honetan, eguzkia ateratzen den unetik hasi eta ezkatzen den arte, ezin dute ez jan, ez edan, ez eta erre ere. Hau dela eta, gu iristerako jada gosaria egina zuten. Guretzat afaria izango litzatekeena, berai-entzat gosaria da, hau delako be-

Zuen bibliaren berdina litzateke.

### Lurralde musulman guztietan berdin egiten al da?

Bai, denetan hilabete irauten du eta azken egunean edo hurrengo egunean festa bat izaten da, berriz normaltasunera bueltatzen garelako.

### Eta bukatzean denean zer?

Bazkari berezia izaten da. Familiarekin elkartu, eta sarritan, aspaldi ikusi gabekoekin egoten gara. Elkar zoriontzen dugu eta auzokoak ere bai. Lagunarteko zerbait da. Ramadanak badu esanahi hori, arazoak ahaztu eta hasieratik hasten gara.

### Hemengoak garenok egin beharko genukeela uste duzu?

Ez, ez. Nire emaztea hemengoa da eta ez du egiten eta nik prestatzen diot bazkaria eta ez da ezer pasatzen. Norberaren erabakia da eta bakea, bakea da eta zuretzako da. Zortzi urteko semea dut eta badaki nik egiten dudala baina ez dut inoiz behartuko egitera. Bakoitza libre da nahi duena egiteko; ona da ramadana egitea, eta jakin behar dena da, zergatik egin behar den.

raien eguneko lehen jatordua. Ramadan hasten duten lehen egunetik, bukatu arte, Marokon egiten duten moduan hemen ere, egunero egunero elkartzen dira gosalduta eta euren bizipenak elkar trukatzeko. Jan ostean, lasai egon, tea hartu, buelta bat eman edo errezzatu egin ohi dute lotara joan aurretik. Aldiz, afaria, eguzkia atera baino lehen egin behar dute eta horretarako, goizeko bostak aldera jaikitzen dira; tripa bete eta eguna indartsu hasteko.

Asko errezzatzen dute, baina lanean daudenean, zaila gertatzen zaie errezzatzeko dituzten bostaldiak egitea. Honenbestez, otoitza aldi batean egiten dute, erabat kontzentratuak. Errezzatzen eta gainera baraurik daudenean «ezer ez daukaten pertsonengan» gogoratzen direla kontatzen ziguten. Eta «otoitzean zaudenean ezin duzu pentsamendua Jainkoa ez den beste leku batean edukiri».

Jan eta edatekoari dagokionez, aukera izan genuen beraien kulturako fruitu lehorrak, zartagian eginiko ogia, gari-semolaz eginiko krepeak, sardinak... zukua, tea edo kafeaz lagunduta probatzeko. Beraien-tzat hain garrantzitsua den tea,

ez da inoiz falta, «beti dago teontzia su gainean prest; bat bukatu orduko bestea jartzen dugu». Tea ere, Marokoko leku guztietan ez da berdina, suabeagoa edo fuerteagoa izaten da, tokiaren arabera. Alkoholarri dagokionez, ramadana hasi baino berrogei egun lehenago, ezin dute probatu ere egin, gorputzak garbi egon behar duelako.

Egutegi musulmana egiteko, ilargiari begiratzen diotenez, herrialde bakoitzak berea du eta hauek, Madrilkoaren arabera egiten dute eurena. Hogeita bederlatzi edota hogeita hamar egun izaten ditu ramadanak. Bestetik, ilargiak, egunero kentzen dizkionez minutuak eguzkiari, egun guztiek orduetegi ezberdina izaten dute. Aurten, irailaren 23an hasi bada ere, beti ez da data berean izaten; urtero urtero, hamabi egun aurreratzen baita ramadanari hasiera ematen dion eguna.

Umeek eta oraindik hemezortzi urte bete gabe dituzten gazteek, ez daukate, nahi eta nahiez, egin beharrik. Hala ere badute aukera, egun batzuetan egiteko. Behin hemezortzi urte betez gero, heldua zarenean, Ramadan egin nahi duenak, egunero egunero bete behar

du. Baina, gaixo egonez gero edo emakumeen kasuan, haurdun edo hilerokoarekin badaude, atseden har dezakete. Beraria esana, «lehenengo zure gorputza da, eta gero ramadana». Aukera ematen dizu zeure burua indartu eta zaintzeko, baina ondoren, huts egindako egun bakoitza, errekuperatu egin behar da behin ramadana bukatu eta hurrengo egunetan.

Azken eguna, bihar izango dute eta astelehenean, festa handi batekin ospatuko dute bukaera. Goizean jaiki, eta eguzkia lagun, gosari normala egingo dute, hilabete osoa, ilargipean jaten pasa eta gero. Dena bukatuta, elkar zoriontzen dute eta egun honetan —batik bat Marokon— aspaldi ikusi gabeko familiakoekin edota lagunekin elkartzeko aukera izaten dute.

**Mezkitaren eskaera**

Marokon eta Marokotik kanpo ere, jakina den moduan, mezkitetan elkartzen dira, beraien otoitzak egiteko. Tolosaldean bizi diren musulmanek ez dira gutxi —85 inguru dira Tolosan—, eta hemen bertan, ez dute aukerarik, mezkitarik ez dutelako. Horretarako, Zuma-

**RAMADANA ▶**

**EZAUGARRIAK**

**Lagunartean.** Hitz egin eta bizipenak trukatzeko, egunero egunero, familia eta lagunekin elkartu behar dute.

**Atsedena.** Gorputzari eman behar zaion geldialdia da.

**Adina.** 18 urtetik gora, egunero egin behar da.

**Tea.** Falta ezin den edaria.

**Eguzkia.** Ezin dute jan, edan edo erre, eguzkia ateratzen denetik ezkututzen den arte.

**Azken eguna.** Festa handi batekin ospatzen dute.

**EGUTEGIA**

**Hasi.** Irailaren 23an.

**Bukatu.** Bihar urriak 22.

▶ Urtero, hamabi egun lehenago hasten da ramadana

eta ilargiaren arabera egiten dute.

**ORDUTEGIA**

**Eguzkia sartzean.** Gosalduta egiten dute.

**Eguzkia ateratzerako.** Goizean goiz jaikitzen dira aflatzeko.

▶ Madrilko da beraiek erabiltzen duten ordutegia.

**DEBEKUAK**

**Urte osoan.** Txerriak jatea.

**Ramadanean.** Alkohola, jokia edo dirua den gutzia.

**40 egun.** Ramadanaren aurreko berrogei egunetan ere ezin dute alkoholik edan.

«Gorputza garbi eduki behar da».

rraga edo Erreteriarra joan behar dute. Bestetik, «Tolosako Udalarri esana diogu, eta baita eskatu ere, mezkita bat nahi dugula Tolosan bertan eta guk ordainduko dugula». Baina hilabeteak pasa omen dira eta «oraindik ez digute erantzunik eman eta ez dakigu ezer; bai edo ez esatea nahi genuke. Gazte asko ari da etortzen eta ez dute non elkaturik eta bide txarretik ez abiatzeko egokia li-

tzateke non elkartua izatea eta zer hobe, mezkita bat baino». Bestalde, aipatu dutenaren arabera, bizilagunak, kexatu izan ohi dira, pixuetan elkartzen direlako eta molestatu egiten dituztelako. Ramadanaren daudenean, elkartu gabe egotea ezinezkoa denez, beraien ustetan, neurri batean bada ere, mezkita bat izateak, gaur egun dituzten oztopo horiek saihestuko lituzke.

**Marokoar jakiak gurean**

**Duela 14 hilabete ireki zituen atek Asalam Halal harategiak Tolosan**

E. MAIZ

Mimoun Azzouzi marokorak, bost urte daramatza Hernanin bizitzen, eta duela hamalau hilabete ireki zuen Asalam Halal harategia Tolosan.

Harategia bada ere, denetarik saltzen du Azzouzzik eta bertako txoko guztiak, ederki beteak ditu era guztietako produktuekin. Hasi babarrun, pasta, fruitu lehor, olio eta gozoetatik, edateko, esne, zuku eta freskagarrietaraino. Eta nola ez, Marokon hain tipikoak diren cous-cousa edota aukera guztietako te-zorroak ere, ez dira falta. Hauxe gain beraien kulturakoak dituzten kazola eta teontziak ere eros daitezke. Haragia izan ezik, eskura daitezkeen ia elikagai guztiak Marokoar jatorrikoak dira; haragiaren kasuan, Euskal Herrikoa saltzen du, eta Bilbotik ekartzen du; bestelako produktuak, be-

rriz, Belgikatik bueltan datoz, baina Marokokoak dira.

Musulmana izaki, bere harategian ez du txerrikirik saltzen. Eta txahal, oilasko edo ardikiz eginak dira bertan salgai dau den urdaiazpiko egosi, saltxitxoi edo txorizoak. Bestalde, elikagai batzuk badira, ramadanaren garai honetan bakarrik saltzen dituenak, ogi berezia esaterako.

Ramadana garaia izan, eta egun guztia jan eta edariz inguratuta egonik, ea nola daramakien hilabetea galdetu diogu, berak ere ezin baitu ezer ahoratu: «oso ondo, ez naiz ia gogoratzen jateaz. Goizean goiz, ongi janda etortzen naiz eta gero eguzkia sartzean jaten dut berriz, ez zait batere gogorra egiten tarte horretan guztian jan eta edan gabe egotearena».

Negozia ondo doala dio eta bezero motari buruz galdetean, hauxe erantzun digu: «etor-

tzen diren guztiak ez dira atzerritarrak izaten, denetarik etortzen da, baita hemengoak direnak ere»; eta «Tolosan, hasiera batean, ez ziren marokoar asko bizi, baina gero eta gehiago datoz eta igoera hori nabaria da; nik, bereziki, nabaritzen dut bezero kopururaren igorarekin», azpimarratzen du harakinak.

Bertako produktuak dastatu nahi izanez gero, aukera polita dugu, eta bada zer aukeratu bere harategian. Mimoun, Belate auzoko, Alberto Perez de Rexil kalean aurkituko dugu bezero berrien zain. ◀



Bezeroa erosketak egiten harategian. IÑIGO TERRADILLOS



Asalam Halal harategia Belate auzoan dago. IÑIGO TERRADILLOS



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Jarduera Fisikoa, Kirola eta Osasunari Buruzko Nazioarteko Kongresua. Gaur Leidorren: 09:30-10:30. Tailer teorikoan ondorioak; 10:30-11:15: *Jarduera fisikoa egiteak egoera fisikoan duen eragina: 65 urtetik gorako pertsonekin egindako azterketaren emaitzak.* 11:45-12:30: *Ariketa fisikoak eta kirolak emakumearengan duen garrantzia.* 12:30-13:15: *Jarduera fisikoa eta dopatzeko substantzien erabilera: elkarrengandik urrutzen den bikotea.* 13:15-14:00: *Ariketa fisikoak egitea osasungarria al da? Berastegi.* Pirritx eta Porroben *Maite Zaitut* ikuskizuna 17:00etan Berastegiko frontoian. **Ikaztegieta.** Uganeko jaiak: 12:00etan VIII. Txirindulari lgoera; ondoren, Ikaztegieta dantzariak; jarraian, Hernaniko bertsolari gazteekin poteoa; 14:00etan, auzo bazkaria; arratsaldean, ume jolasak; egunean zehar, Ainara eta Miren trikitalariak. **Ibarra.** Kapoeira Belabietan; 10-14 urtekoak 16:30etik 18:00etara; 18:00etatik 19:30era 15 urtez gorakoak. **Villabona.** Onddo Gazte Asanbladak antolatuta, argazki bilduma goiz osoan; 11:00etan, ume tailerra; 12:30ean, Iruñerriko hustutzearen ondorioak; 14:00etan bazkaria; 19:00etan, mendiko diapositiba emanaldia; 21:00etan, kontzertuak. **Villabona.** Ingles praktikak nahi dituenak egiteko aukera. Asteartean, hilak 24 18:30ean, Amasa kafetegian. Telefono



**Karmen Canok prestatu du tortillarik goxoa**

**TOLOSA ▶** San Estebango Kultur Astearen baitan, atzo, patata tortilla lehiaketa izan zen. Hala Ferialekuan, batzuk tortilla prestatzen aritu ziren bitartean, beste batzuk, gerorako *luncha* atontzen aritu ziren. Txapelketako irabazlea Karmen Cano izan zen, honek, bi laguntzako afaria eraman zuelarik. Gaur ere izango da zer ikusi San Estebango Kultur Astearen baitan. Hala,

16:00etan altxorraren bila jokoa eta Mus txapelketa egingo dituzte. Hogeita hamar minutu beranduago, haur jolasak izango dira. 18:00etan berriz, buruhandiek gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek, eta 19:00etan, txokolatada. Egunari amaiera emateko, Arima Beltza blues-rock taldearen kontzertua izango da. Eta ondoren, DJ Jawata eta DJ Arabo. ESTI EZEIZA

zenbakia: 943 69 41 10 (Olga).

**Tolosaldea.** Pirritx eta Porroben *Maite Zaitut* DVDaren aurkezpen festa gaur. 10:30etan Triangulotik kalejiran abiatuko dira Pirritx eta Porrotx pailazoak Bonberenea Txarangarekin, Bonberenean iritsi arte, eta han, 11:00etan aurkezpena egingo dute.

**ZINEMA**

**Leizta.** *Tiempo de valientes* filma 19:30ean.  
**Tolosa.** *World Trade Center* filma, 19:30ean eta 22:30ean.  
**Tolosa.** *Asterix y los vikingos* filma, 17:00etan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leizta.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

**IRRATIA**

**Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Hitza hegan.*

**Goiko irrateria (107.0 FM)**  
12:00. *kornera.*

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
**Maialen Otamendi.**  
Gaur 7 urte. Muxu potoloak ebekoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Garazi Zabala Martinez (Tolosa).** Gaur urte bat. Ondo pasa ebekoen partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**Klasikoaldia**  
Musika klasikoko aukerarik zabalena prezio onenean  
Uma eta auzama bitarteko karpanta

www.elkar.com

**ekar**  
11

ARRASATE - BAIÑA - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - IRUN - IURUKA - TOLOSA